



## **EBAZPENA, 2015EKO MAIATZAREN 18KOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZARENA, ENERGIAREN, MEATEGIEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZAK SUSTATUTAKO "EUSKADIKO 2025 ENERGIA ESTRATEGIA" PLANAREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN-AGIRIA EMATEN DUENA.**

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, ezarritakoari jarraiki, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura aplikatu behar zaie ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen duten planei, energiari buruzkoak izanez gero, baldin eta administrazio publiko batek erabakitakoak edo onetsitakoak badira, eta legezko edo arauzko xedapen batek eskatzen badu plan hori egitea eta onestea, edota autonomia-erkidego bateko gobernuek hartutako erabakia bada.

Euskadiko 3E2020 Energia Estrategia, Eusko Jaurlaritzaren IX. legealdiko planetan jasota dagoena, 2011ko abenduan onetsi nuen Gobernu-kontseiluak. Hurrengo 10 urteei begira egindako Euskadiko energiaren alorreko politikaren oinarriak biltzen dituen plangintza-tresna den aldetik, tresna hori berrikusi behar da, egoera berrira egokitzeko, azken urteetan arau-esparruak, teknologiak, merkatuek eta energiaren kontsumoak egindako bilakaeraren emaitza aintzat hartuta.

Energia-estrategiaren aldi berri honen esparruan zurrenik garatuko diren jardueren artean, proiektu batzuei legez aplikatu behar zaie ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

Beraz, Euskadi 2025 Energia Estrategia planari ingurumen-ebaluazio estrategikoa aplikatu behar zaio, bat baitator 3/1998 Legearen I.A eranskinean eta 21/2013 Legearen 6. artikuluan ezarritako baldintzekin. Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio prozedura hori izapidetzea eta ebatzea, apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuak, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, xedatutakoari jarraiki.

Dokumentu honen bidez zehazten da zer-nolako xehetasun- eta zehaztasun-maila izan behar duen planaren ingurumen-azterketa estrategikoak. Horretarako, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egingo zaie, hasierako dokumentua helarazi ondoren. Hasierako dokumentu hori aipatzen da 21/2013 Legearen 19. artikuluan, eta 211/2012 Dekretuan, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzekoan.

### **EBALUATUKO DEN PLANEAN JASOTAKO PROPOSAMENA**

Euskadiko Energia Estrategiak honako helburu hauek ditu:

- EAEko energia-sistemaren lehiakortasuna eta jasangarritasuna garatzea.
- Euskadiko ehun sozioekonomikoa bultzatzea, energiaren alorreko ekipo, produktu eta zerbitzu aurreratuak garatzearen bitartez.
- Energiaren efizientiaren alorreko jarduerak indartzea sektore guztietan, CO<sub>2</sub> isuriak eta atmosfera kutsatzen duten beste isuri batzuk murriztea, eta petrolioaren alternatiba diren energiak bultzatzea.

Helburu horiek lortze aldera, zenbait neurri sustatuko dira; eta, kasu batzuetan, neurri horiek azpiegituren garapena ekarriko dute, edota ingurunean eraldaketa zuzena eragingo dute.

Horrenbestez, hasierako dokumentuan bertan adierazi bezala, planak azpiegitura berrien eraikuntza planteatzen du: haize-parkeak, eguzki-energia fotovoltaikoa lortzeko instalazioak, gas naturalaren hobiak esploratzea eta ustiatzea, energia-zentral mini-hidraulikoak, biomasa-plantak, gas naturala eta elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sareak.

Estrategian ez dago proiektu zehatzik, baina egitasmoak kokatzeko irizpideak jasota daude, eta kasuren batean, garatzeko irizpideak ere bai, estrategia horren esparruan egingo diren proiektu energetikoen kokagunea eta aurrerabidea gidatzeko, ingurumenari kalte gutxiago egite aldera.

Horren guztiaren ondorioz, planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren ardatza izango da etorkizuneko instalazioak kokatzeko irizpideak egokitzea, natura- eta kultura-balioengatik eta giza osasunari eta/edo ingurumenari begira dakartzaten arriskuengatik garrantzitsu diren eremuetatik kanpo. Eremu horietan azpiegiturak edo ingurunea zuzenean eraldatzea dakarten instalazioak egitekotan, horretarako jarraibideak eman beharko dira, aintzat hartutako elementu gailenak arriskuan ez jartzeko berme nahikoak izateko.

Irizpide horiek kontuan hartu beharko dira, Euskadiko 2025 Energia Estrategiaren eremuko planetan eta garapen-proiektuetan.

## **KONTSULTAK EGIN ETA INTERESDUNAK IDENTIFIKATZEKO IZAPIDEA**

2015eko martxoaren 9an eman zitzaion hasiera planeko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurari Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honetan, eta hilabete bateko epea hasi zen, 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, dagokien herri-administrazioek eta herritar interesdunek egoki irizitako oharrak egin zitzaizkien ingurumen-jasangarritasunaren txostenaren eraginaren, eta xehetasun- eta zehaztasun-mailaren inguruan.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren egoitzan eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean interesdunen eskura jarri zen planaren zirriborroa, bai eta hasierako dokumentua ere.

Halaber, dokumentu honen I. eranskinean jasotako erakundeei kontsulta egin die Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honek.

Hona hemen erantzunak bidali dizkiguten erakundeen zerrenda:



- Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Euskara, Kultura eta Kirol Saila. Arabako Foru Aldundia.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.

## **EBAZPENA**

196/2013 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurak izapidetzeko eskumena.

Espedienteko dokumentazioa aztertuta, eta dagozkion herri-administrazioak eta herritar interesdunak identifikatuta eta haien kontsulta eginda, 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritako izapidea betez, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honek honako hau

### **EBATZI DU:**

1.- Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak sustatutako "Euskadiko 2025 Energia Estrategia" planaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-agiria idaztea, ingurumen-alderdiei lotutako ondorioetarako soilik, ondoren jasota ageri diren xehetasunen arabera.

2.- Ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-agiri hau Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren webgunean argitaratzeko agindua ematea.

### **TXOSTENA:**

Txosten honen edukia bat dator 211/2012 Dekretuaren I. eranskinean ezarritakoarekin (*ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-agiriaren edukia*).

#### **a) Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak**

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du nola implementatzen dituen energia-estrategiak ingurumenaren alorreko helburu hauek:

- Gure natura-ondarea babestea, zaintzea eta lehenera ekartzea, eta ekosistemek eskura jartzen dizkiguten zerbitzuak zaintzea.

- Natura-ingurunearen kontserbazioa eraginkortasunez integratzea sektore-politiketan:

- Plangintzak eta sektore-araudiak berrikustea eta egokitzea, ekosistemak, fluxuak eta zerbitzuak kontserbatzea bideratzeko. Garrantzi berezia duen kasua da Natura 2000 Sarearen eta zerbitzu ekosistemikoen integrazioa.

. Lurzoruaren okupazioa geldiaraztea, erabileren nahasketa eta espazio degradatuak berroneratzea eta berrerabiltzea bultzatuz:

- Lurralde-antolamendu adimentsu baten ezarpenaren alde egitea. Lurralde-antolamendu horrek lehentasuna emango die biztanleriaren dentsitate handiagoei; erabileren bateratzea (lana, aisia, etxebizitza) eta lurzoru-kontsumoaren optimizazioa indartuko ditu, bai eta lurzoruaren berroneratzea ere.
- Lurraldeko paisaia-baliabideen babesa sustatzea, eta bereziki aparteko paisaien eta kalitate eta naturaltasun handikoen kontserbazioa indartzea.
- Habitatak lotzen dituzten ekologia-korridoreak zaindu eta berroneratzea.

-. Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.

. Inguruneen kalitatea hobetzeko bidean aurrera egitea:

- Gainazaleko ur-masak (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lur azpiko urak eta eremu babestuetakoak (bainatzeko guneak, ur-bilketen guneak, nitratoen kaltea pairatzen duten eremuak eta abar) ondo egotea lortzea.
- Lur azpiko uren kutsadura arian-arian murriztea bermatzea eta gehiago kutsatzea saihestea.
- Iltas ingurumeneko kutsadura saihestea eta ezabatzea.
- Osasunaren Mundu Erakundeak emandako gomendioekin bat datorren aire-kalitatea (kanpoko eta barrukoa) bermatzea.

-. Lurraldearen jasangarritasuna areagotzea.

. Pertsonen eta salgaien mugikortasun jasangarriaren aldeko hiri-ereduak bultzatzea:

- Garraio publiko eta partekatua indartzea, eta IKTak baliatzen dituen garraio multimodal adimentsua sustatzea, pertsonen eta salgaien mugikortasuna optimizatzeko. Halaber, energia garbien bidez bultzatutako garraioen alde egitea.

. Lurraldeko energia, ura, hondakinak eta lurzoruak arduraz erabiltzea sustatzea:

- Etxeetan eta hiri-enpreetan aurrezte eta efizientziaz jokatzeko bultzatzea.

. Herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea bultzatzea lurraldean:

- Prestakuntza sustatzea eta sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea, herritarren karbono-aztarna murrizte aldera.

-. Ekonomia lehiakorra, berritzailea, karbono-kontsumo gutxikoa eta baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen lortzen saiatzea.

. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra sustatzea.

- Energia aurrezte eta efizientzia sustatzea arlo guztietan (etxebizitzak eta eraikinak, mugikortasuna, industria, zerbitzuak, lehen sektorea, administrazio publikoak eta produktuen kontsumoa) eta energia-iturri berriztagarriak bultzatzea.



- Herritarren eta enpresen erantzukidetasuna sendotzea, klima-aldaketaren alorrean (garraio publiko eta partekatua bultzatzea, energia-efizientzia handiko produktuen kontsumoa sustatzea, produktuen eta zerbitzuen eko-etiketa, borondatezko konpromisoen sistemak eta isurketen konpentsazioak sustatzea.
- . Materialen kontsumoa optimizatzea, eta efizientzia eta lehiakortasun handiko produktu eta prozesuen bitartez emaitza lehiakorragoak lortzea.
- Espezializazio adimentsuaren estrategia garatzeko eta ezartzeko prozesuan laguntzea, fabrikazio aurreratuaren bidean aurrera egiteko lehentasunean, Euskadin eko-berrikuntza eta eko-efizientzia bultzatuko duten programen bidez.
  - Eko-diseinua sustatzea, baliabideen kontsumoa murrizteko eta hondakinak sortzea prebenitzeko tresna den aldetik; eta produktuen funtzionaltasuna (zerbitzazioa), jasangarritasuna eta birziklagarritasuna areagotzea.
  - Produktuaren eta prozesuaren eko-berrikuntza bultzatzea enpresetan, ingurumenak merkatu globalean sortzen dituen merkatu-aukerak aprobetxatzeko.
  - Teknologia garbiak eta eskura dauden teknologia onenak, industria-isuriei buruzko zuzentarauan ezarritakoaren arabera, erabiltzen hastea bultzatzea.
- . Ekonomia zirkularra bultzatzea, ezer ez dadin alferrik galdu:
- Zikloak ixtea eta ekosistema industrialak osatzea bultzatzen duten negozio-eredu berrien bidez ekintzailatza sustatzea.
- . Ekintzailatza eta enplegu berdea bultzatzea:
- Ingurumenak ematen dituen enpresa-aukerei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea ekintzailaeei, ekintzailatza bultzatze aldera.
  - Udalerrietan berrikuntza eta jardunbide egokiak bultzatzeko ekimen gehiago abian jartzea.

## **b) Geografia-esparrua**

Energia-estrategia honen aplikazio-eremu geografikoa Euskal Autonomia Erkidego guztia da, lurraldeak, eskualdeak edo udalerriak berariaz bereizi gabe.

Hala eta guztiz ere, neurri batzuen garapena aurreikusteko modukoa da lurraldeko zenbait eremutan, haien izaera kontuan hartuta; esate baterako, energia mini-hidraulikoari eta itsas energiari buruzko jarduerak, eta garraioaren alorreko energia-efizientzia.

## **c) Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak**

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen bereizgarria da ingurumen-balio handiak dituzten eremuak eta gizaki asko bizi diren gunek oso estu teilkatuta daudela.

Estrategiaren lurralde-eremuan bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako eta ingurumenerako dituzten arriskuak direla-eta. Balio eta



arrisku zehatz horiek bateratu egin behar dira energiaren prospekzioak, ekoizpena, garraioa eta banaketa egiteko azpiegituren etorkizuneko garapenarekin.

Aipatutako lehen eremu horien artean daude natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legedia edo natura kontserbatzeari buruzko legedia aplikatuz emandako arau-xedapen orokorren edo nazioarteko hitzarmenen ondorio diren ingurumen-babeserako araubideren bat duten inguru guztiak, bai eta lurralde- nahiz hirigintza-plangintzaren ondorio diren babes-araubide edo baldintzaren batzuk dituzten eremuak ere.

Kultura-balio handia dutenen artean daude kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere.

Halaber, eremu garrantzitsuak dira nekazaritzarako balio handiko lurzorua, eta, urak babesteko ikuspegitik, Eremu Babestuen Erregistroan dauden inguruak. Eremu horiek finkatuta daude, hain zuzen, Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko mugape hidrografikoetako plan hidrologikoetan, eta honako hauek dira: ibai-erreserba naturalak, eremu hezeak (Ramsar eta Espainiako hezeguneen inbentarioa), babes berezia behar duten eremu hezeak (aurreko kategorian sartzen ez diren hezeguneak), naturaren edo ingurumenaren aldetik interesgarriak diren ibai-tarteak, eta Eremu Babestuen Erregistroko ur-bilketa guneen babes-perimetroak.

Arrisku garrantzitsuak dituzten eremuei dagokienez, 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denbora duten uholde-arriskuko guneak, higadura-arriskuko eremuak, kutsatuta egon daitezkeen lurzorua eta akuiferoak kutsatuta izan ditzaketen eremuak hartzen dira barnean, bai eta Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko mugape hidrografikoetako plan hidrologikoetan zehaztutako Eremu Babestuen Erregistroko eremuak ere; honako hauek, hain zuzen:

- gizakiek edateko ura hartzeko esleitutako eremuak, bai eta dagozkien babes-perimetroak ere;
- uretako espezieak babesteko eremuak, ekonomikoki esanguratsuak direnak eta jolas-erabilera dutenak;
- kaltebera izendatutako eremuak (nekazaritza-iturrietako nitratoak direla-eta);
- hiriko hondakin-urekiko eremu sentikorak.

Azkenik, kontuan izan behar dira, orobat, baina neurri txikiagoan, eremu hauek:

- Mehatxatutako espezieen EAEko katalogoan "babes bereziko", "kaltebera" edo "bakan" kategorietan dauden mehatxatutako landare- edo animalia-espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak.
- Europar Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasunezko habitatak, ibai- eta estuario-eremuei eta/edo baso autoktonoei lotutakoak.



- Korridore ekologikoen sareak. *Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea, eta Arabako Lurralde Historikoko Konektibitate Ekologiko eta Paisajistikoaren Estrategian* definitutako korridore ekologikoen sarea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako interes naturalistikoko eremuen zerrendan eta EAEn naturaren aldetik interesekoak diren espazioen katalogo irekian dauden eremuak.
- EAEko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren eta paisaien katalogo eta gidalerroen arabera paisaia-balioagatik katalogatutako inguruak.
- Interes geologikoa duten eremuak.

#### **d) Jarduketak egiteko egokiak ez diren inguruak**

Lehen adierazitakoari jarraiki, estrategiak ez ditu berariazko instalazioak sustatzen eremu zehatzetan; aitzitik, energia sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko azpiegituren garapena sustatzen du, garrantzi txikiko ingurumen-ezaugarriak dituzten eremuetan; alegia, natura- eta kultura-balioak eta giza osasunari eta/edo ingurumenari begira dakartzaten arriskuak garrantzi txikikoak diren eremuetan: inguru urbanizatuak, lugorriak, lehendik dauden azpiegituretatik edo komunikazio-bideetatik gertu dauden tokiak, eta abar.

Horren haritik, planak berariaz aintzat hartu behar ditu lehen deskribatutako eremuak, dokumentu honetan zehaztutako xehetasun-mailaren arabera, estrategiaren esparruan inplementatuko diren azpiegituren kokaguneez edo garapenek bete beharreko baldintza gisa. Horrenbestez, benetan bateratuko da azpiegitura horien garapena Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen balio eta arriskuekin.

Beraz, planean ez da aurkitu aldatu beharreko edo kendu beharreko jardunik.

#### **e) Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra**

Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten fasean, zenbait erantzun jaso dira, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari eta xehetasun- eta zehaztasun-mailari dagokionez, eta erantzun horien edukia ondorengo lerroetan jasota dago.

Eragindako administrazio publiko batzuek zenbait iradokizun egin dituzte, energia sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko azpiegiturak kokatzeko irizpideei buruz, eta honako ingurune-elementu hauek kontuan hartzea proposatu dute:

- 3E2025 plangintzaren esparruan, energia sortzeko azpiegiturak eremu babestuetatik kanpo kokatzeko gomendioa; alegia, honako eremu hauetatik kanpo:
  - Naturagune babestuak, apirilaren 15ko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, xedatutakoaren arabera.
  - Natura 2000 Sarean dauden eremuak.



- Natura-parkeak, biotopo babestuak eta zuhaitz apartekoak.
- Urdaibaiko biosfera erreserba.
- Txingudiko natura-baliabideak babesteko eta antolatzekeo plan berezia.
- Nazioarteko garrantzia duten EAEko hezeguneak (RAMSAR hitzarmena).
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean katalogatutako hezeguneak.
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako interes naturalistikoko eremuak.
- EAEn naturaren aldetik interesekoak diren espazioen katalogo irekia.
- Xedapenen aplikazioari buruzko gogoeta:
  - 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 2.e artikulua.
  - Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako 5.2.b5 gidalerroa.
- Korridore ekologikoak eta habitaten arteko konektibitatea aintzat hartzea.
- EAEko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren aurreproiektuan nabarmendutako paisaiak aintzat hartzea.

Horrez gainera, beste iradokizun batzuk egin dituzte, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiaren irismenari buruz:

- Zerikusia duten beste plan eta programa batzuen deskribapena.
  - "Bizkairako Energia Estrategia Jasangarria, BEEL 2020" aintzat hartzea.
- Irizpideak definitzea, ingurumena babesteko helburuak betetze aldera.
  - Energia gehien kontsumitzen duten sektoreen plangintzan sartzeko helburu eta irizpideak, eskaera murriztea helburu hartuta.
  - Hirigintzan energia gutxiago erabiltzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko irizpideak definitzea.
  - Administrazioaren instalazioetan kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarria sortzeko irizpideak definitzea.
- Ingurumenaren gaür egungo egoeraren eta ziurrenik izango duen bilakaeraren alderdi garrantzitsuen deskribapena:
  - Energia-kontsumoaren egungo egoera errepideko garraioan eta ziurrenik izango duen bilakaera, egungo plangintza dela-eta.
  - Energia-kontsumoaren egungo egoera eta izango duen bilakaera, Lurralde Antolamenduaren Gidalerro onetsietako bizilekuen kuantifikazio-eredua kontuan hartuta.
- Ingurumenean eragin ditzakeen ondorio garrantzitsuen aurkezpena.
  - Basoko biomasa energia sortzeko erabiltzea sustatu izanaren ondorioz, azkar hazten diren espezien eskaerak ingurumenean, eta bereziki



basoko espezie autoktonoetan, eragin ditzakeen ondorioak aztertzekeo premia aintzat hartzea.

- Energia berriztagarria eta jatorri fosila duen energia sortzekeo instalazio berrien garapenerako aurreikus daitezkeen planen eta proiektuen tipologia definitzea.
- Biztanleen osasunean eragin daitezkeen ondorioen azterketa kontuan hartzekeo premia.

- Prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien deskribapena.

- Azterketa arkeologiko baten premia aintzat hartzea, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren erantzunean jasotako edukiaren arabera, legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuen kasuan, eta obrek edo zorrek eremu arkeologiko kalifikatuetan, inbentariatueta edo ustez arkeologikoak direnetan eragina duten proiektuen kasuan.

- Alternatiben ebaluazioaren deskribapena.

- Haize-parkeak berrindartzeko alternatiba aztertzea, haize-energia sortzekeo aukera gisa kontuan hartzekeo.
- Energia sortzekeo modu desberdinen jarduera- eta mantentze-kostuak kontuan hartzea, estrategiaren epemugari erreparatuta eta epe luzera begira (2050).
- Energia-iturriei lehentasun aldakorra ematearen ondorioz, askotariko hornidurak baliatuta, energia sortzekeo eta kontsumitzeko modu desberdinak aintzat hartzekeo premia aztertzea. Halaber, askotariko kontsumoak kontuan izatea, energia aurreztekeo eta efizientzia areagotzekeo jardueren eraginkortasunaren arabera, eta alternatiba bideragarriek ingurumenean eragingo dituzten ondorioak ebaluatzea.

- Jarraipena egitekeo aurreikusitako neurrien deskribapena:

- Hirigintzaren garapenak dakarren energia-kontsumoa kuantifikatzeko adierazleak definitzea, jasangarritasuna bideratzen duen hirigintzaren soluzio eta irizpideak erreferentziatzat hartuta.

Amaitzeko, eskaera formal bat egiten da, eragindako administrazio publikoen artean Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila ere sartzeko, prozedura substantiboaren ondorioetarako.

#### **f) Ingurumen-azterketa estrategikoari erantsi behar zaion informazio eta dokumentazio gehigarria**

Ingurune-azterketa estrategikoak izango ditu, gutxienez, 21/2013 Legearen IV. eranskinean eta 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako edukiak.

Hasierako dokumentuan jasota daude, jada, eranskin horietan eskatutako alderdi batzuk; baina, hala ere, honako gai hauek erantsi behar zaizkieo ingurumen-azterketa estrategikoari:



- Energiaren alorrean prospekzioak egiteko, produzitzeko, garraiatzeko eta banatzeko azpiegitura berriak kokatzeko edo garatzeko irizpideak administrazio-izapideen printzipioetara egokitu behar dira, bai Euskadiko 2025 Energia Estrategian sartzen diren proiektu zehatzen kasuan, bai eta planean sartuta egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa bete behar duten proiektuak baimentzeko esparrua eratzen duten plan eta programen kasuan ere. Azken helburua hau izango da: irizpide horiek berdin erabili ahal izatea, bai plan, programa edo proiektuen alternatibak hautatzean, bai eta kasu bakoitzean dagokion ingurumen-ebaluazioan ere.
- Energiaren prospekzioak, ekoizpena, garraioa eta banaketa egiteko azpiegiturak kokatzeko alternatibak hautatzeko eta ebaluatzeko kontuan hartu beharreko ingurumen-intereseko eremuen artean kontuan hartu behar dira c atalean adierazitakoak (ingurune-eremu garrantzitsuak), bai eta eragindako administrazio publiko batzuek kontsulta-fasean, txosten hau egin aurretik, proposatutakoak ere.
- Ingurumen-azterketa estrategikoaren dagozkion ataletan jaso beharko dira kontsultatutako administrazio publikoek, aurreko ataletan zehaztu direnak, eragindako gogoetak.
- Alternatiben ebaluazioari buruzko atalean 0 alternatiba ebaluatu beharko da; alegia, egungo 2020 estrategiari eutsiz gero ingurumenaren alderdi garrantzitsuenek ziurrenik izango duten bilakaera. Horren ostean, 2025 estrategia berria jasotako proposamenekin alderatu behar da.
- Gas naturala erauzteko aukerak identifikatzeko aurreikusitako proiektu energetikoak, eta, hala badagokio, haien aprobetxamendua aintzat hartuta, berariaz kontuan izan beharko da batzordeak 2014ko urtarrilaren 22an emandako gomendioa, hidrokarburoak (adibidez, eskisto-gasa) haustura hidraulikoa baliatuta esploratzeko eta produzitzeko gutxieneko printzipio batzuei buruzkoa, planaren aplikazioak ingurumenean eragiten dituen ondorio kaltegarri garrantzitsuak prebenitzeko eta murrizteko neurrien artean.

#### **g) Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak eta ingurumen-jasangarritasuneko txostenean duten eragina**

Ingurumen-jasangarritasunaren txostenaren oinarri izan behar duten funtsezko alderdiek lotura izan behar dute jarraian ezartzen diren alderdiekin, eta, egoki izanez gero, neurriak ezartzeko eta erabilgarri dauden teknika onenak aplikatzeko irizpideen bidez garatu behar dira:

- .- Natura- eta kultura-balio garrantzitsuak zaintzea: babesten diren balioak galtzea eragoziko duten irizpideak ezartzea eremuak babesteko.
- .- Osasuna eta ingurumena kaltetu dezaketen arrisku berriak prebenitzea eta/edo lehengo arriskuen areagotzea saihestea.
- ..- Natura, kultura edo ingurumen-arriskuaren ikuspuntutik garrantzi txikia duten eremuei balioa ematea –energiaren prospekzioak, produkzioa, garraioa eta banaketa egiteko azpiegitura jakin batzuk hartzeko sustatu behar diren eremuak



dira-, eta bideragarriak diren eta ingurumenean ondorio kaltegarri gutxiago duten garapen-aukeren aldeko apustua indartzea.

- Energiaren kontsumoa eta berotegi-efektua duten gas kutsatzaileen isurketak murriztea.

#### **h) Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioak**

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren alorrean indarrean dagoen araudiari jarraiki, ingurumen-azterketa estrategikoak berriaz ebaluatu behar du estrategiak eragin nabarmena izan ote dezakeen Natura 2000ko guneeetan.

Planak zenbait kautela ezartzen ditu, aurreikusitako azpiegiturek lurraldeko eremu garrantzitsu zehatz batzuetan inpaktu handiak saihesteko. Baina, hala ere, ziur asko proposamen batzuek eragina izango dute Natura 2000 Sarean, babestutako beste zenbait eremutan bezala.

Nolanahi ere, etorkizuneko azpiegitura horiek kokatzeko guneari buruzko zehaztasun falta dela-eta, Natura 2000 lekuei nabarmen eragin liezaieketen jardunen azterketa egin beharko da dagokionean, eta, behar izanez gero, ebaluazio egoki bat egin beharko da, abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan, ezarritako araudi erregulatzailerari jarraiki.

#### **i) Adierazle kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak**

Euskadiko 2025 Energia Estrategian jasotako helburu substantiboek dagozkien jarraipen- eta ebaluazio- sistemaren adierazleen osagarri gisa, ingurumen-azterketa estrategikoak ezarriko ditu ingurumen-helburu estrategikoen jarraipena egiteko ingurumen-adierazle egokiak, txosten honen a atalean identifikatu direnak, bai eta estrategiak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio positibo eta negatiboak ere, halakorik balego.

Aukeratutako adierazleen artean aintzat hartu ahal izango dira, egoki izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-adierazleak, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean jasota daudenak, bai eta Eustatek lurraldeari eta ingurumenari buruz emandakoak ere, eta, oro har, estrategia aplikatzeko epean, txosten honen a atalean adierazitako ingurumen-helburuek, planarekin lotuta daudenek, egindako bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen gainerako adierazleak. Halaber, strategiaren garapena dela-eta, ziurrenik eragin handiena pairatutako ingurumen-alderdiak aintzat hartuko dira, eta bereziki bermatu behar da honako alderdi hauen jarraipena:

- Lehendik identifikatuta dauden natura- eta kultura-balio garrantzitsuen babestea.
- Garrantzi txikiko eremuei balioa ematea.
- Osasuna eta ingurumena kalteku dezaketen arriskuak prebenitzea eta/edo lehendik identifikatuta dauden arriskuen areagotzea saihestea.



- Energiaren kontsumoa eta berotegi-efektua duten gas kutsatzaileen isurketak murriztea.

Planean, azkenean erabiliko den adierazle bakoitzerako, adierazi egin beharko da zein agintaritzak egin behar duen ikuskapena, eta desberdina izan daiteke kasu bakoitzean, zer Administrazio den neurriaren edo jardunaren arduradun, eta plangintza-sisteman ikuskapena zein fasetan sartzen den; bestela, iraupena eta maiztasuna adierazi beharko dira, adierazleari planak dakarkion ekarpen indibiduala identifikatzeko.

#### **j) Eragindako administrazio publikoak eta herritar interesdunak**


211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eragindako administrazio publikoen eta herritar interesdunen zerrenda izango da agiri honen II. eranskinean jasota dagoena.

#### **k) Jendaurreko informazioa eta kontsultak**

Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, plana izapidetu bitartean, jendaurreko informazioaren izapidea eta II. eranskinean jasotako dagokien administrazio publikoen eta herritar interesdunen kontsulten izapidea bete beharko du ingurumen-azterketa estrategikoak, bai eta plan horren aurretiazko bertsioak ere, araudiak zehazten duen dokumentazioarekin batera, gutxienez 45 eguneko epean.

Ingurumen-azterketa estrategikoa egiteko eta abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotako 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako jendaurreko informazioa eta kontsultak egiteko gehieneko epea hamabost hilabetekoa izango da, irismen-agiri hau sustatzaileari jakinarazitako egunetik zenbatzen hasita.

Ingurumen-azterketa eta -agiri horietan, identifikatu egin beharko dira egilea edo egileak, adierazi egin beharko da haien titulazioa, eta, hala dagokionean, araututako lanbidea, bai eta amaiera-data eta egilearen edo egileen sinadura ere, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 16. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

  
  
Alejandra Iturrioz Unzueta  
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria  
Directora de Administración Ambiental

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzak 18.



## I. ERANSKINA

211/2012 Dekretuaren 9. artikuluari jarraiki kontsulta egin zaien eragindako administrazio publikoen eta herritar interesdunen zerrenda.

- Kontsultatutako administrazio publikoak:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza  
Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza  
Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza  
Uraren Euskal Agentzia, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Eusko Jaurlaritza  
Ingurumen eta Hirigintza Saila, Arabako Foru Aldundia  
Euskara, Kultura eta Kirol Saila, Arabako Foru Aldundia  
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundia  
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Natura Baliabideen, Ehizarako Faunaren eta Arrantzaren Zerbitzua, Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Zuzendaritza Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundia  
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Mendien Zerbitzua, Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Zuzendaritza Nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia  
Mendietako eta Natura Inguruneako Zuzendaritza Nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia

- Kontsultatutako interesdunak:

Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Ekologistak Martxan.  
WWWF/ADENA  
LURRAREN LAGUNAK  
SEO/Birdlife  
GREENPEACE

## II. ERANSKINA

Eragindako administrazio publikoen eta herritar interesdunen zerrenda, 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

- Eragindako administrazio publikoak:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza  
Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza  
Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza  
Uraren Euskal Agentzia. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza  
Ingurumen eta Hirigintza Saila. Arabako Foru Aldundia  
Euskara, Kultura eta Kirol Saila. Arabako Foru Aldundia  
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia  
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Natura Baliabideen, Ehizarako Faunaren eta Arrantzaren Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia  
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Mendien Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia  
Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia

- Herritar interesdunak:

Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Ekologistak Martxan.  
WWF/ADENA  
LURRAREN LAGUNAK  
SEO/Birdlife  
GREENPEACE